

ARGI IZAN!!!

**INDARKERIA, BESTEA EDO BESTEAREN
BORONDATEA MENPERATZEKO
ERABILTZEN DEN INDAR EDO ENERGIA DA.
ERASO SEXISTA, BERRIZ, EDONOREN SEXU-
ASKATASUNA EDO SEXU-IDENTITATEAREN
AURKAKO JARRERA DA.**

**EZ DUGU
JARRERA
SEXISTARIK
ONARTUKO.**

ETA ZUK?



ZALDIBIAKO UDALA
Gipuzkoa



ERASO SEXISTA BATEN AURREAN HARTU BEHARREKO JARRERA AZALTZEN DUEN GIDA

- Emakume bat erasotua izaten ari dela uste baduzu, harengana joan, ondo dagoen galdetu eta laguntza eskaini. Esku hartu baino lehen BETI galdetu emakumeari ea laguntzarik nahi duen.
- Emakumea erasotzailearengandik urrunduko dugu beti.
- Erasoa tabernaren batean gertatzen bada, egoera aztertuta, argia piztea edo/eta musika itzaltzea baloratuko da.
- Laguntza onartu badu, erasoaren intentsitatea baloratu:
 - Intentsitate baxuko erasoak: astuna, gehiegizko ukitzeak, lerdetsua, irainak, mespretxuak, mehatxua, xantaiak,...
 - Intentsitate altuko erasoak: kolpeak, jipoiak, eraso sexuala eta hilketa.

INTENTSITATE BAXUKO ERASOA

- Erasotzailea identifikatu
- Identifikatu eta gero, berarengana hurbildu eta argi adierazi eremu horretan ez dugula eraso sexistarik onartzen. Ondoren, kanporatu (hau taldearen babesean egitea garrantzitsua da seguruago izateko eta gaitzespena garbi geratzeko).
- Erasotzailea kanporatu ondoren, erasotua izan den pertsonak esandakoa arretaz entzun (azalpenak, beharrak) - ez kendu garrantzirik kontatutakoari. Ondoren, eraso sexistak salatzeke telefonoa eskaini. Horrela, berak nahi izanez gero, deitu eta zer gertatu den kontatu ahal izango du.

**EZ AHAZTU, baietarik gabe
ez dago onespenerik!!!**



INTENTSITATE ALTUKO ERASOA

- Emakumea erasotzailearengandik urundu eta leku pribatu batera eraman. Babestu emakumearen identitatea eta ez utzi inoiz bakarrik. **GOGORATU!** Erasotua izan denaren erabaki guztiak errespetatu. Ez dago salaketa ezartzera behartuta.
- 112ra deitu (Ziurrenik anbulantzia eta polizia azalduko dira).
- Intentsitate altuko eraso baten aurrean erasotzailea atxikitzea interesatzen da (saiatu erasotzailea identifikatzen eta atxikitzen).
- Erasoa sexuala (edo sexu eraso) gertatzen bada, erasotuari jakinarazi behar diogu ez duela arropaz aldatu behar, ez eta bere burua garbitu ere, eta aho-bortxaketa bada ez duela jan edo edan behar, erasotzailea identifikatzeko frogak desagertu daitezkeelako.

Salaketa telefonora deitu. Ondo azaldu zer gertatu den. Intentsitate altuko erasoari aurre egiteko protokoloa martxan jarriko da eta erantzuna emateko deialdiak eta mobilizazioak egongo dira.

Gure jaietan gertatzen diren eraso guztiak erregistratu eta intentsitate/mota baloratuko da.

TELEFONOAK:

SOS deiak: 112

Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko telefonoa: 900 840 111

Gizarte larrialdietarako foru zerbitzua: 943 22 44 11

INDARKERIA MATXISTA EZ DA BORTXAKETA BAKARRIK

Indarkeria fisikoa, zein psikologikoa, baita askatasun sexualari eginiko erasoak, mehatxuak, bortxaketa edo askatasunaren edozein mugapen, eraso sexistak kontsideratzen dira.

Eraso bat gehiago ez jaietan!!!

